

jokulariak123

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
uda 2021 verano

GOIAK JOTA





aisge

www.aisge.es

AISGE

es lo tuyo

Si eres actor o actriz audiovisual,

¡HAZTE SOCIO!

No te costará nada,

Te beneficiarás de nuestra labor asistencial y formativa

Y recibirás los derechos que te corresponden



123

uda
verano
2021
Azala Argazkia
Markel Alonso



17



06



14

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@euskalaktoreak.eus
eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabibilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus

Koordinazioa, edizioa

Eneko Olasagasti

Maketazioa, diseinua

I. Z.

Inprimategia

Antza

LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritsi eta artikulua.

Recordad que esta revista es de todos y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.

SUMARIO

04 EDITORIALA
Joandakoak
eta etortzekoak
EAB

06 ELKARRIZKETA
Goiak Jota
Eneko Olasagasti

14 IKASTAROAK

16 **Mi experiencia como
miembro del jurado del
Gobierno Vasco**
Marga Altolagirre

17 **EGINDAKO IKASTAROAK**
Gaizka Mikelarena, Miriam
Martín

18 **OHARRAK**

JOANDAKOAK ETA ETORTZEKOAK

"Ez dira betiko garai onenak" dio kantuak eta azken bi urteak joan diren modua ikustean berrestea besterik ez zaigu geratzen. Baina egia da ere aurrera egitea beste erremediorik ez dugula. Eta hala gabilta.

Urtero bezala, hasieran Batzar Orokorrean Zuzendaritza Batzordeak jarraitzea erabaki zen aldaketa bakararrekin, Bego Guerrerok utzi Javier Liñerak hartu zuen bere tokia.

Urtariletik hasita eta lerro hauek idazten ari garen arte Antzerki Konbenioa lantzen ibili gara Eskenarekin. Negoziaketan beste eragile batzuen iritziak ere kontutan izan ditugu kobenioak ahalik eta alde gehien bil ditzan. Besteak beste, Besteok (Konpainiak ere), ADDE (Dantzariak eta dantza konpainiak), Artekale eta bestelako jarduerak dituzten konpainiak ere, tartean Artedrama. Azken batean ez da soilik aktoreentzako konbenioa baizik eta interpreteentzat oro har. Espero dugu Buletinaren ale hau jaso eta aste gutxitara Ezohiko Batzar Orokorra egitea Konbenioa onartzeko. Puntualki jasoko duzue informazioa posta elektronikoaren bitartez.

Ezohiko Batzarra beste zerbaitetarako erabili nahiko genuke ere, hain zuzen Besarkada Sariak dituen oinarri egin nahi dizkiegun aldaketak onartzeko. Aldaketa horien nondik norakoak zehazteko online bidezko bilera egin genuen, zeinetarako deia guztiei zabaldu zitzaizuen. Bilera uztailak 13an egin zen eta proposamen hauek onartu ziren Ezohiko Batzarraren onarpenaren zai.

1- Orain arte sariak banatzeko zeuden hiru alorrak mantendu egiten dira, Zinea, Telebista eta Antzerkia, genero bereizketa kenduz.

2- Genero bereizketaren ordez bi maila berri ezartzen dira: Aktore Protagonista eta Aktore Ez Protagonista.

3- Ohorezko Besarkada bere horretan mantentzen da.

4- Arestian aipatutako hiru arloak (Zinema, Telebista eta Antzerkia) hartuko lituzkeen sari berri bat ezartzea: Errebelazio Aktorea. Sari berri honen aukeraketa

batzorde berezi batek egingo luke. Batzordea osatuko lukete EABko Zuzendaritza Batzordeak (Edo horretarako propio sortutako Batzorde berezi bat) eta ueña iristean izendatuko liratekeen alor desberdinetako beste erakundeetako ordezkariak (Eskena, Ibaia, EPE/APV...).

Udaberrian ADDEk proposamena luzatu zigun haiek duela bi urtetik hona antolatzen dituzten jardunaldi batzuetan elkarlanean aritzeko: EDADEI 3. Hezkuntza, Arte Eszenikoak eta Ikerkuntza lotzen dituzten jardunaldiak dira. Orain arteko biak Bilbon bakarrik izan dira baina hirugarren edizioa Gipuzkoara zabaldu da ere. Datorren urtean Gasteizera iristea ere aurreikusten da. Aurten, Bilbon urriak 16an eta Donostian 23an izango dira eztabaida mahaiak, goizez, eta EABko Hezkuntza batzordeko Esther Uria, Ana Pérez eta Mari Jose Gonzalezek hartuko dute parte, besteak beste. Egitarau osoa irailan argitaratuko da.

Aurten ikastaroak atzerapenarekin datoz. Orain arte Lara Izagirrerena besterik ez dugu antolatu, elkarlenerako bide berri bat zabalduz Tabakalera eta EQZE-rekin (Elias Querejeta Zine Eskola), baina udazkena bero dator lau ikastaro berriekin. Informazio gehiago Buletin honetako orrietan topatuko duzue.

Jarraitzen dugu erakundeekin lankidetzan, EABko ordezkariak Batzorde desberdinetan parte hartzen dutelarik: EJR-en Kultur Saileko ekoizpenetarako laguntzak, GFAko Kultura Eskola egitasmoan, Zinegoakeko sarietan eta eukarazko antzespen onenaren Donostia Sarian.

Udazkeneko bezala, Gipuzkoan, Sormenaren parte izan egitasmoa gauzatu dugu. Data zehatzak jakiterakoan, orain arte azaroan izan da, jakinaraziko dizkizuegu interesa duzuenok izena eman dezazuen..

Eta gure jardunaren laburpen hau bukatzen joateko, baina ez horregatik garrantzi gutxiagoz kontrakoa baizik, EABren egituari eragingo dion aldaketa nabarmen bat aipatu behar dugu. Datorren urtean Gurutze Baz-

tarrika, abokatua eta urte luzez gure jardun eta eskeintza sindikalaren arima izan dena jubilatu egingo zaigu. Horrekin azken bi hamarkadatik gora berak egindako lana etorkizunean egingo duenaren bila hastea dago-kigu. Eta badakigu, ez da lan erraza izango, zeren berak ez du ardura jurikoa bakarrik izan, administrazioa, kontabilitatea eta beste hainbeste lan baita ere. Guzti honek gogoetara eraman gaitu eta hogeitaz gora duen egitura EABk garai berrietara birmoldatu beharra dagoela ondioroztatzen eraman gaitu. Aldaketa horiek, egitekotan, antolaketa eta finantzaketa modu berriak bilatzera bultzatzen gaitu eta horretan ari gara. Espero dezagun behar bezalako irtenbideak aurkitzea eta, ondorioz, Batzar Nagusiak onartu beharko lukeen proposamena prestatzea.

Eta bukatzeko, gazteok, mezu bat zuentzat. Orain dela 33 urte EAB martxan jarri genuenok adin batera iristen ari gara eta erreleboa hartzeko unea iristen ari da. EABk etorkizuna izango badu zuen eskuetan dago. Datorren Batzar Nagusian Zuzendaritza Batzordeko parteidetako batzuk utzi beharko dute. Zuzendaritza batzordean parte hartzerantz animatu nahi zaituztegu. Oro har parte hartzerantz gonbidatu nahi zaituztegu. Zuen beharra dago, zuen zai gaude.

A pesar de lo anormal de la situación en que vivimos la vida continúa. Desde enero de este año estamos negociando con Eskena, y otros agentes de las artes escénicas, el Convenio de Teatro. Estamos cerrando flecos y, posiblemente, algunas semanas después de que recibáis el Boletín os convocaremos a una Asamblea General Extraordinaria para su aprobación, o no. El 13 de julio se hizo una reunión online, a la que fuisteis convocados, para reflexionar sobre los Premios Besarkada. A falta de su aprobación en Asamblea, aprovecharemos la convocatoria para el Convenio, esta es la tabla de propuestas:

1- Se mantienen los premios otorgados en los

tres ámbitos en los que se otorgaban hasta ahora, Cine, Televisión y Teatro, eliminando la distinción por género.

2- En lugar de la distinción de género se establecen dos rangos: Actor/Actriz Protagonista y Actor/Actriz no protagonista.

3- Se mantiene el premio honorífico, Ohorezko Besarkada-Besarkada de Honor.

4- Se añade una categoría nueva, Actor/Actriz Revelación que abarca los tres ámbitos arriba señalados (Cine, Teatro y Televisión). La elección de este nuevo galardón correrá a cargo de una comisión formada por la junta directiva de EAB (U otra comisión específica creada para ello) y representantes de otras organizaciones del sector (Eskena, Ibaia, EPE/APV...) a designar en su momento.

Desde ADDE (Asociación de profesionales de la Danza) recibimos una invitación para colaborar en la tercera edición de EDAEI (Encuentro de Artes Escénicas, Educación e Investigación) que este año llega a Gipuzkoa. Serán dos jornadas matinales. En Bilbao dentro del BAD el 16 de octubre y en Donostia el 23 en el LABO. Tres miembros de la Comisión de Educación de EAB participan en las mismas: Esther Uria, Ana Pérez y Mari Jose Gonzalez.

Seguimos colaborando con distintas Instituciones participando en varias comisiones de valoración, Consejería de Cultura, Diputación de Gipuzkoa, Zinegoak... Este otoño tendremos una nueva edición de Sormenaren parte izan en Gipuzkoa. En primavera lo hicimos en Bizkaia. Cuando tengamos las fechas concretas realizaremos la convocatoria de actores y actrices.

El año próximo se jubila Gurutze Baztarrika, que además de estar al frente de la asesoría jurídica realiza otros trabajos en la oficina de Donostia (Administración, contabilidad, relación con los/as afiliados/as...). Se cumplen más de veinte años con la actual estructura de EAB. Esta situación nos lleva a plantearnos una reflexión sobre la idoneidad de la misma y la posibilidad de realizar cambios de cara al futuro. Desde la junta se harán propuestas que serán sometidas a su aprobación en Asamblea General.

Y para terminar, un mensaje para los/as jóvenes. Este año se cumplen 33 desde la fundación EAB y el tiempo no pasa en balde para quienes han llevado su gestión hasta hoy. Pensamos que llegan tiempos de relevo. Si EAB tiene futuro está en vuestras manos. Os invitamos a participar en la nueva Junta Directiva que saldrá de la próxima Asamblea o en cualquiera de las Comisiones. Os necesitamos y os esperamos.

GOIAK JOTA

Testua **Eneko Olasagasti**
Argazkiak **Markel Alonso**

Lehendabiziko aldiz Goyatako emkumezkoa interpreta-zio sariak bi euskal aktoreentzat izan dira, interpretazio sari nagusia Patricia Lopez Arnaizentzat eta errebelazio saria Jone Laspiurrentzat eta gainera euskaraz egin-dako *Ane* filmagatik. Haiengana hurbildu gara guzti hura nola bizi izan zuten jakiteko eta euren ibilbidea ge-hiago ezagutzeko.

Formakuntzarekin hasiko gara. Biak baduzue gauza bat amankomunean, interpretazioarekin zerikusik ez duten ikasketak egin dituzue. Zuk, Jone, Arte Ederrak eta zuk, Patricia, Publizita-tea eta Harreman Publikoak. Esan daiteke, zure kasoan gutxiago Jone, biak deskubritu zenutela bokazioa piska bat beranduago. Nola izan izan zi-ren prozesu horiek?

Jone- Bai, hala da. Txikitatik ere musika ikasi nuen. Pianoa eta ahotsa. 2018an Koban taldean nenbilela, korista bezala, Eibarren kontzertu bat eman genuen. Nire gurasoen herrian eta baita Maite Arrotajaregirena, Mursego. Kasualidadea edo, Maite, nire amaren laguna ere badena, kontzertuan zegoen eta komentatu zigun... Ba begira casting hau egiten ari dira, nik musika egin-go dut pelikularako. *Akelarre* pelikulaz ari zen. Inguruko nesken bila ari ziren, musikarekin eta dantzarekin ha-remana zuten neskak. Eta castingera aurketu nintzen.

Hiru casting edo egin nituen. Lehenengoa bideoz eta beste biak presentzialak. Eta 2019ko otsaila edo mar-txoan Koldo Zuazua produktoreak deitu zidan ea taldera bildu nintekeen galdezka eta hurrengo egunean, 12tan, entsaiatzen ari ginen. Ni bekaria negoen elkarte bateko kultur egitasmo batean. Lana utzi nuen eta entsaiatzera joan nintzen.

Eta zergatik erabaki zenuen castingera aurkez-tea? Probatzeagatik edo jada harra hor sartuta zenuen?

Jone- Tira, asko gara txikitari aktore izatearekin ames-ten dugunok. Beti gustatu izan zait antzerki mundua, ba zergatik ez, e? Gertatzen da ere hori lortzea ia ezi-nezkoa iruditzen zaizula, aktore bezala lan egitea era profesional batean... Eta ez duzu seriozki planteatzen, nire kasuan behintzat, bizitzeko modu bat bezala. Eta bapatean aukera hori sortzen da... Eta zergatik ez. Eta gainera Maitek joatea gomendatu badit beharbada zer-bait ikusi duelako da, aukerak ikusten zizkidalako. Eta indar horrekin aurkeztu egin nintzen. Edo ondo joan zen. Txabe zen casting zuzendaria eta baita *Ane* pelikulakoa ere. Eta deitu egin zidaten horretarako ere. Uste dut bi proba egin nituela. Lehenengoa zurekin izan zen Patri?
Patricia- Ez dakit lehenengoa... Nirekin bat izan zen. Hor Lakuan.





Argazkia Tamara Arranz

Jone- Bai, bigarrena izan zen. Ba, hori, bi proba egin nituen eta hortxe nengoan.

Pelikula bat bestearekin kateatu zenituen beraz... Zer pentsatzen zenuen momento horietan?

Jone- Gurdi batera igoko bazina bezala da. Ez dakit zer egiten ari naizen baina aurrera... Gauzak gertatzen doaz eta momentuan erantzun behar duzunez ba ez zara asko geratzen pentsatzeko zer egiten ari zaren. Nire inguruan, familiar eta, ere ez. Beti jokatu izan dut horrela. Nik uste dut inkonsziente bat izan naizela.

Baina uneren batean edo bestean erabakitzen duzu, zeren antzerki ikasketeki ekiten diezu.

Jone- Begira, *Akelarreko* rodajea jada erabaki nuen Madrilera mugitu nahi nuela. Eta 2019/20 ikasturtea Madrilera mugitzea erabaki nuen baina Arteko Master bat egitera, Complutesean. Hara joan nahi nuen, ikusi ere zer aukera zeuden antzerkia ikasteko baina ez nituen nire aurreko ikasketak utzi nahi eta ikustean gauzak nola doazen handik, ba, antzerki ikasketekin hasi. Eta horrela egin nuen. Masterra bukatu nuenean ikusita neukan antzerki fisikoak erakartzeko ninduela eta Mar Navaroren eskolan eman nuen izena, beka bati esker. Jacques Lecoq-en teknikan.

Zu, Patricia, askoz beranduago hasi zinen, ez? Nola izan zen zure prozesua mundu honetara hurbiltzeko.

Patricia- Egia esan, ez zen hain berandu izan. Lana bai beranduago baina ikasketak ez. Publizitatea bukatutakoan, hogeitalau urtekin edo... ez nuen gustoko, ez nuen horretan lan egin, nahi orduan ez nekien oso ondo nora jo eta egon nintzen debordaldi batean bizitzen, esperientziak hartzen, bizitzeko hiriz aldatzen, piska bat horrela, abentura... Ta Gasteizera itzuli nintzeanean nere burua bilatzen ari nintzen, espresio modu baten bila edo. Sentitzen nuen hor barruan zerbait neukala eta ez nekien ondo nola materializatu hori. Gauza asko probatu nituen, argazkia, piska bat margotu... Saiatzen nintzen sorkuntza arloko gauzekin. Eta antzerkiarena bilaketa horretan agertu zen. Bapatean pentsatu nuen zer zegoen nire izaeran, beti egon dena. Eta hori piska moduan erabiltzea pentsatu nuen. Orduan, ba, beti jolastearena eta pertsonaiak egitearena gustokoa izan nuen eta hasi nintzen Ortzai eskolan. Gasteizko antzerki eskola da. Lehenengo kurtsoa zen eta horretan hasi nintzen.

Jonek esan duen bezala, ez nenkien noiz zauden prest profesionala izateko. Niretzat gustokoa zen, entrenamendu bat bezala. Orduan ikastaroak egiten nituen. Luis Black izan zen gustokoa nuen irakasle bat, urtero

etortzen zen Gasteizera. Gero antzerki fisikoa, dantza garaikidea, gustokoak nituen ikastaroak egiten nituen. Ez nuen pentsatzen lan egitean. Hasi nintzenean, egun nire errepresentatea dena, Loinaz Jauregi, etorri zen eskolara antzerki bat ikustera eta hor ikusi ninduen eta interesatu egin zen. Hor hasi zen kontua. Deitu ninduen, argazkiak eskatu zizkidan... Nik ez nekien oso ondo zinemari lan egin nahi nuen ala ez, beldurra ematen zidan osparena eta horrelakoak. Antzerkia nuen gogoko eta zinemarena ez nenkien. Baina deitu ninduen behin eta esan zidan proiektu oso polita zeukala... *80 egunean*. Egin nituen argazki batzuk etxean. Aitak egin zizkidan... unas fotos de traca... Joan nintzen probara eta hor hasi zen gauza. Hori izan zen lehenengo lana baina gero bolarada luze batean egon nintzen gauza oso txikiak egiten. Ez neukan ziur gustokoa nuen ala ez. Lehenengo esperientzia oso inpaktantea izan zen niretzat eta ez nuen asko disfrutatu. Eta gero gauza txikiak eginez oso zaila da disfrutatzea zeren marroi hutsa da, oso zaila... Eta orain dela bost urtetik hona bai, pertsonaia osoagoekin hasi nintzen... Esatebaterako *El guardián invisible* leko pertsonaiekin jada disfrutatu nuen. Pertsonaia sekundarioa zen eta... bazuen mamia, hasten zara jadanik ezagutzen nuen lengoia bat hitz egiten, badituzu zure tresnak. Eta hortik aurrera dena hasten da. Lanak utzi eta honetaz bizi. Baina bueno, egia da ere, hori egiteko lanean eszedentzia eskatu nuen eta pelikula bukatutakoan itzuli egin nintzen lanera. Pentsatzen bainuen, bueno, lan bat atera da baina horrek ez du ezer esan nahi, ez dakit jarraipenik izango duen... eta hilabete batzuen ostean *La Peste* egiteko deitu ninduten.

Irakurri dudanez lan hori ikastola bateko jangelan zen baina egiten zenuen lan ere ipuin kontalari moduan, ez?

Patricia- Nire lana eskola horretan jangelan eta zaintzan zen. Eta gero El Dorado aretoan bulegoan egiten nuen lan ere. Hiru lan horiek neuzkan. Eta gero ipuin kontalariarena urtero egiten nuen astebete eskolan.

Hor, momento batean lotzen dituzu bi ekoizpen, *El guardián invisible* eta *La Peste*, erabaki bat hartu beharrean ikusi zenuen zure burua?

Patricia- Azkenean ez zen horrela gertatu. Beldurra neukan zeren esan dizudan urte guzti horietan nik ez neukan buruan horretaz bizitzen bukatuko nuenik. Ba-

tzutan pentsatzen nuen... A ze mobida aukera hori egin beharra, aukeratzea, eta arrisku hori hartzea. Baina azkenean iritsi zenean ez zen horrela izan. *La Peste* telesaila zen, hilabete pila bat eta horrek oinarri bat ematen dizu, denbora bat horretaz bizitzeko eta, orduan, lanean baja eman nuen konszienteki, emaila idatzi eta enter sakatu nuen baina tarte horretan gauzak mugitzen hasi ziren eta lanak sortzen. Azkenean ez zen zaila izan. Ez nuen arriskurik sentitu. Gauzak aurrera zihoazen.

Eta zentzu horretan pribilegiatua sentitzen zara?

Patricia- Ba, zorte ona dudala, bai. Nik badakit lan honetan hori gertatzen dela, gauzak gora eta behera doazela, momentu oso onak eta ez hain onak. Hau oso intentsua dela lan egiten duzunean eta egiten ez duzunean ere lanik ez duzulako, eta beldurra mugitzen da eta guzti hori. Baina momentuz zortea daukadala sentitzen dut zeren ez zait hori gertatu.

Imajinatzen dut gauza guzti hauek zuretzat ez direla berriak, Jone. Errodaje momento askotan eta entsaiotan entzunak. Horiek horrela direla jakinda nola sentitzen duzu zuk?

Jone- Ba, ez dakit, oso naturala ere... Prozesu koherentea, duina iruditzen zait. Horrelako momento bat iristen zaizunean bizitzara zerbaitengatik izango da ere, gauzak ondo egiten ari zarelako edo... bizibide horretarako badaukazulako zerbait, aportatzeko daukazulako. Patriciak esan duen bezala, Loinaz antzerki obra horretara hurbildu zenean zer edo zer ikusi zuen beregan. Azkenean, berak aipatu duen aje guzti horretan badago zerbait, ba, pertsonok nola eraikitzen garen, iraganean eduki ditugunak... Patriciak aipatu dituen urte horiek, bere buruaren bila. Lan guzti horietan praktika hartu izana... Nire ibilbidea askoz motzagoa da baina beti eduki dut gertu artearekin zerikusia duen guztia, sormenarekin... Uste dut baita ere gauzak zerbaitengatik iristen direla, nolabait.

Pentsatzen al duzue inoiz zuen bizitzak aldatu zituzten une horietaz, Loinaz azaldu zen egun hori edo Eibarreko kontzertua eman izan ez balira, momentutxo batzuk baitira, bizitza batean ordubeteko kontua... edo ez, carretera y manta...

Jone- Nik pila bat... Zeren hasten zara ekintzen norabideaz jabetzen eta... Niri gertatu zitzaidana... Kontzer-

tua, nire gurasoen herria, Maite zegoela, Maitek ama-
rekin hitz egin zuela... Ni Kobanen sartu nintzenean ere
izan zen piska bat txiripaz, pertsona bat behar zuten eta,
nire mutil lagunak komentatu zidan pertsona bat behar
zutela... dena bizitzan piskat horrela da... nik badaukat
sinismen bat, zauden lekuan bazaude zerbaitengatik
dela... Azkenean, nik uste dut, erabaki txiki horiek dire-
la benetan zure ibilbidea eraikitzen dutenak.

Eta zuk Patricia?

Patricia- Hau gai supermetafisikoa da. Esan nahi dut,
nola gertatzen diren gauzak eta, ez dakit... Ba... ni
ados nago Jonerekin. Azkenean gauzak presente dira,
bakarrik presentea, benetan presentea bakarrik existi-
tzen da, bestea ideiak dira, bai atzeruntz begiratzea bai
aurrera begiratzea... Orduan presentean egiten dugun
gauza bakoitzak bideratzen du gainontzekoa, ez dakit...
Ez dakit zer den sortzea, zer den libre aukeratzea...

Hori esan nahi nuen, ze neurritan duzue zuen bi- zitzak kontralatzen dituzen sententzioa edo kanpo- tik datozen eragina direla? Non dago hor oreka?

Patricia- Ba, nik uste dut oso gutxi kontroltzen dugula.
Parte bat, hainbat gauza kontrolatu ditzakegula baina
asko ez. Hasteko badago zerbait... uste dut pentsatzen
dugula gauza asko aukeratzen ditugula benetan auke-
ratzen ditugunak baino. Azkenean gure izaerakin ezin
dugu ezer egin... gu garena gara. Gero zarenarekin zer
egin duzun... badaude aldatzen diren gauzak ere eta
zuk lan egin dezakezu zure buruarekin baina asko ger-
tatzen da zu zarenagatik.

Iristen da une bat non zuen bizitzak gurutza- tu egiten diren, hor iristen da Ane. Goazen ha- sierara, nola izan zen topatze hori? Ama-alaba harremana landu behar zenuten gainera, nahiko antzekoak diren pertsonaiak nortasunari begira, emakume indartsuak biak...

Jone- Hasieran Davidek nahikoa inprobisatu arazten zi-
gun, horretan indar handia jarri zuen. Pertsonaiak erai-
kitzeko ez bakarrik gidoiaren arabera, pertsonaiak erai-
kitzeko orokorrean. Asko hitzegiten genuen, goiza edo
arratsaldea horretan ematen genuen, pertsonaia horiek
nolakoak ziren, bai Marina (gidoilaria) eta bai berarekin.
Pertsonaiak oso landuta zeuzkaten. Pertsonaia horien
psikologia, nire ustez, brutal da... nola landuta dau-

den, ez bakarrik bakarka baizik eta beraiek biak, bata
bestearen aurrean, bata bestearen ispilua da. Orduan,
horrekin jolasten zuten denbora guztian, ezer ez da anek-
dotikoa, bakoitzaren ekintzak eta izateko moduak bes-
tearen izateko moduari erantzuten dio. Hori hain garbi
zeukaten... Guri oso erraz azaldu ziguten guztia.

Patricia- Niri amatasunarenak beldurra eman zidan ha-
siera batean. Ni ez naiz ama eta gainera asko lan egin
dut ume eta nerabeekin. Eta nerabeekin beste gauza
batzutan lan egin izan dudanean gertatu zaidana izan
da... Berdinak bezala tratatzen ditudala eta orduan kos-
tatu egiten zitzaidan leku desberdin batean jartzea eta
pentsatzen nuen nola egingo dut nik Joneren amare-
na. Baina azkenean Jonek esaten duena da. Hain argi
zeukaten eta, gainera, hain ondo idatzita daude pertso-
naiak, hain ondo dago gidoia... bakoitzak bere pertso-
naia oso erraz hartu genuela. Zeren oso ulergarria da.
Hain koherentea da nola dagoen idatzita beraien izaera,
azkenean, ulertzen duzunean dena super koherentea
da. Inprobisatu dezakezu pila bat pertsonaia ulertzen
duzulako, hor kokatzea oso erraza. Uste dut bioi hori
gertatu zitzaigunez bata bestearen aurrean jartzerakoan
dena oso fluidoa zen, oso erraza. Eta uste dut hori gi-
doiagatik gertatzen dela, eta Jone eta niregatik, bakoit-
zak hain ondo ulertzeagatik bere pertsonaia.

Hori pertsonaien izaerari begiratuta baina bestal- de texto inguru oso indartsua dago. Garai haiek, AHT-aren aurkako borroka, Gaztetxeak... Hori zu- retzat, Jone, berria zen. Zuk, Patricia, agian hobe- to ulertzen zenuen...

Jone- Ez pentsa horrela denik ere... Ez nituen bizi
ETA-ren urte gogorrenak baina bai azken urteak, eta
nik oso ondo gogoratzen dut, ETA-ren amaiera eta urte
horiek... bueno, euskal kontextuan hazi naiz, nire fa-
milia ere, ba... nire familia da. Aneren gauza asko bizi
izan ditut eta ez zait hain urrun geratzen. Baita ere auzo
bizitza asko egin dut, ni Gaztetxean hazi izan naiz. Ane
ere bai. Nire inguruko jende asko egon da AHT-ren
aurkako mugimenduan. Ni ez, ez dakit zergatik, agian
beste gauza batzutan egongo nintzelako. Beraz, kon-
textua nahiko ondo ulertzen nuen. Aneren motibazioak
ere, nolabait, ulertzen nituen, gauzak radikalki aldatzeko
gogo hori neuk nire haragitan sentitu izan dut.

Patricia- Niretzat gauza bera. Erraza. Dena super-
familiarra, gainera Gasteizen geunden. Grabatzen

geunden ni bizi izan naizen kaleetan. Horren inguruan erraztasuna.

Eta pelikula Zinemaldian estrenatzen da. Feed-backa jasotzen hasten zarete. Zu, Patricia, sariak jasotzen hasten zara. Nola bizi izan zenu-ten prozesu hori? Nola izan zen Goyak baino lehenagoko prozesu hori?

Patricia- Jo, ba... Gauza da zuk filma bukatzen duzula eta ahaztu behar duzu eta zure bizitzarekin jarraitu, gauzak egin... eta uzten duzu. Eta ailegatzan denean momentua... Ez dakit zenbat denbora pasa zen, bederatz hilabete edo ia urtebete.

Eta pandemia eta konfinamendua tartean gainera.

Patricia- Bai, konfinamendua eta dena... Gauza da guk filma ikusi gabe genuela. Donostian ikusi genuen, Zinemaldian. Normalean filma lehenago ikusten da, zeren bestela, zu horra zoaz eta ez dakizu zer ikusiko duzun, zer gertatuko den... Nik, grabatzen geundenean, sentitzen nuen zerbait berezia egiten ari ginela baina sentsazio bat da, ez dakizu... Azkenean, ikusten duzu nola egiten duen lan Davidek, zer gertatzen zitzaigun guri aktoreoi... zerbait berezia sentitzen nuen baina filma oso txikia zen. Azkenean, ez duzu ezer espero, ez dakit. Espero duzuna da zinemetara iristea eta jendea joatea. Badakizu hor lan handia egin behar duzula ez dagoelako baliabide handirik. Eta Donostiara heldu ginenean... Hori Itzela izan zen... beti kontatzen dut, lehenengo kritika azaldu zenean, Davidek goizeko bederatzietan edo deitu ninduen. "Patricia, hotelean zaude? Bai, bai... Jaitsi, jaitsi momento bat". Jaitsi nintzen, bakarrik geunden kalean eta telefona erakutsi zidan. "Begira, begira... lehenengo kritika". Superpolita zen, super ondo jartzen zuen. Eta guk ezin genuen sinetsi. Eta gero zera... eromena izan da. Oraindik ez naiz gelditu hori begiratzera ondo. Zeren hain intentsoa izan zen... Gainera ni ere une berezian nengoan. Oso heavy izan zen, super super. Izan zen Goya jaso eta etxera... Ezin nuen... Bueno bai, elkarrizketak egin genituen eta gero ahaztu dena... Gehiegi izan zen. Baina bidaia oso polita izan zen, emozio pila bat. Eta Jonek lehen esaten zuena, trenean joatea bezala, ez dakit nola esan duzun... agenda bat daukazu eta bengal! Estimuloak, poztasuna, bihotza ahotik ateratzen zaizula ia... Dene-tarik, denetarik... Jendea idazten, deitzen... eromena, eromena izan zen. Ez daukazu denbora zureganatzeko...



Eta zuk Jone?

Jone- Bai, hori... urtebete pasatzen da ez duzula pelikularen ia berririk... Niretzat lehen aldia zen zinean lan egiten nuena eta pentsatzen nuen: Hau normala da? Sentitu nintzen piska bat umezurtz. Gainera, ni, nola pelikulan berandu azaltzen naizen ez genuen spoiler bat egin nahi. Orduan nire pertsonaiari buruz ez zen hitzegi beranduago arte, pelikula estreinatuta arte... Prozesu guzti horretan ni paper pasiboago batean egon behar izan nuen, ikusten eta entzuten. Eta klaro, gauzak zetozkigun gainera eta gainera, eta Goyatan iada leherketa izan zen... buf... Patriciak esaten duena, ordurako ginen iada lur jota, nekatuta, oso nekatuta... Egon ziren hor hilabete batzuk gauzak ateratzen zirena etengabe, kritikak, elkarrizketak... Eta oso oso polita izan zen. Niretzat igual piska bat handia... zer ari naiz? Ez dakit oso ondo zein naizen momento honetan... baina ondo...

Gainera gala berezi bat izan zen. "Glamourik" gabekoa nolabait, berez jendea bere etxetik... zuek ez, zuek landetxe batean elkartu zineten, gainera, irudietan ikusten zitzaizuenez, dotore jantzita... Elkarrekin bizi izan zenuten beste batzuen aldean...

Patricia- Oso oso berezia izan zen. Oso zaila izan zen diseinatzea momentua, ez dakit zenbat buelta eman genizkion protokoloiei, ea nola egin genezakeen, ze neurri



hartu, non egon, oso zaila izan zen formula aurkitzea baina, azkenean, nik nahiago izan nuen horrela. Azkenean beste galatan zu zure eserlekuan zaude. Agian badaukazu taldeko beste norbait ondoan edo ez daukazu. Gerta daiteke aretoko beste puntan egotea... Burgosekoa oso polita izan zen... Azkenean elkarrekin, hobereana... Egongela handi bat genuen eta bukaeran ekarri zituzten pintxoak eta hori. Baina momento horretara ailegatu ginenean hain geunden ya bukatuta... Hileta bat zirudien, ez zen festarik egon, hain fuertea izan zen dena, sari bat eta bestea, garrasi batean bakoitzarekin... bukatu genuen pintxoak isilik jaten.

Jone- Bai, bai, horrela zen... Jendeak esaten zuen, a ze festa edukiko zenuten, eta inondik inora... eta esker-rak hain lagun eta familia artekoa izan zela zeren, bestela, imajinatzea hori bera gehi kamarak, txaloak, argazkiak, galderak... zer ez zen izango hura! Anek daukana hori da, hain pelikula txikia da errodajetik bertatik familia giroan bizi izan dugula dena.

Tira, dagoeneko pasa dira hilabete batzuk guzti horretatik... Orain jabetzen zarete?

Patricia- Nik ezetz sentitzen dut. Zeren beste proiektorekin hasten zara, beste gauza batzuekin eta... Ez dakit, oso arraroa da... Bolada batean gelditu egin nintzen, oso nekatuta bainegoen, benetan... gaixo-

rik... beste errodaje batetik nentorren ere, menditik, elurretan... *La cima* pelikula egiten, oso gogorra. Eta hortik jeitsi nintzenean justu guzti hau gertatu zen... Elkarrizketa bat egin nuen Bartzelonan San Jordi sariari aitazkian eta bideo bat ipini zidaten momento guzti horiekin eta bideoa ikusi nuenean negarrez hasi nintzen... Eta bai, ez naiz jabetu, badago hor bizi nuen momentu hori baina uste dut oraindik ez dudala guzti hori irenseteko denborarik hartu, batzutan muturra sartzen dut eta pentsatzen dut: ze pasada!

Jone- Piska bat arraroa. Lehen Patriciai esaten zuena. Zinearen mundua oso mundu intentsoa da momento batzutan, eta beste batzutan basamortua bezala. Pasatzen dituzu hilabete batzuk pertsona batzuekin elkar bizitzen, Goyaren garaietan egunero jasotzen genituen Daviden mezuak eta abar... Eta gero pasatzen denean, bapatean, non geratzen da hori? Urrun geratzen da nolabait eta gu, uste dut, ez garela hain konsziente egindako lanaz eta erreperkusioaz. Norberak barrutik bizitzen du baina, klaro, jende pila batek ikusi zaitu, gauza guztiz publikoa da eta ni, uste dut, ez naizela konsziente oraindik. Puntu horretan nago, aurkitzen, balantza batean bezala.

Eta profesionalki aldatu da?

Patricia- Niretzat uste dut baietz. Lan eskeintza pila bat

izan ditut. Goyak baino lehen hasi ziren, *Ane* agertu zenean. Asko galdetzen didate hau. Baietz uste dut, hor jarri duela fokoa Goyak. Baina lehenago hasi ziren lanak agertzen. Nik bai nabaritzen dut.

Jone.- bueno, nik Goya bat daukat baina oso ibilbide motza eta nolabait "inoren lurrean" nagoela sentitzen dut. Ez alde batean, super profesionala, ez bestean, super amateurra.

Ikasten jarraitzen duzu?

Jone- Bai, bai... ni orain inoiz baino gehiago nago kontaktuan interpretazioarekin zeren ikasten ari naiz. Errodajeetan nengoenan baino askoz garbiagoa daukat interpretazioa zer den, gehiago dakit, orain horretan ari naiz. Niri Goyak ez dit ekarri lan gehiago. Gainera esango nuke badagoela jende bat lehenago niregana jo zezakeena, agian orain aurreiritziengatik, Goya jaso izanagatik, ez nautenak bere aukera jartzen.

Galdetu nahi nizuen ere emakumezkoen ikusentzunezkoetako presentziaz, bolo bolo dabilen gaia baita eta irakurri dizkizuet horri buruzko adierazpenak.

Patricia- Ba, nik, injustoa ikusten dut, klaro. Hor ahalegina egi behar dela uste dut. Arlo guztietan gertatzen da hau. Gero ere kritikak egiten zaizkio diskriminazio positiboari. Baina ondo ulertu behar da, ez baigara puntu berdinetik abiatzen. Eta ez bazara puntu berdinetik abiatzean ya berez ez dago berdintasunik. Hor ahalegina egin behar da, egon behar dira horrelako politikak. Helburua benetan berdintasunean bizitzea da. Eskubide berdinak izan ditzagun. Ez dadila genero arazorik izan, matxismoa desager dadila. Generoari buruzko informazioa izan dadila pertsona bati buruzko deskribapenaren ilararen azken tokian. Bitartean Politika horiek beharrezkoak ditugu.

Jone.- Nik uste ni aldaketa momentua harrapatzen nauela. Uste dut ez duela zerikusik ni gazteagoa edo nerabea nintzen garaiko industria eta oraingoaren artean. Uste dut suertea izaten ari naizela parte hartzen ari naizen proiektoeekin. *Larru gorritan* grabatzen aritu ginen eta lantaldeko ia gehienak emakumeak ginen, ia gehienak. Esti Urresolaren laburmetraian ere, *Polvo somos*, lantaldeko asko emakumeak ginen. Ikusten dut aldatzen ari dela, noski, kriston bidea dagoela egiteko hori, noski. Hori independente esaten zaion zineaz esa-

ten dut. Zine komertzialean, noski, ez da hain nabarmena. Soldaten diferentziak eta abar. Badaukat konfiantza piska bat. Baina lana egin beharra dago, bai.

Euskararen Gaia ere aipatu nahi nuen zuekin. Goya saria jaso duzuenok, Eneko Sagardoy tartean, denak izan zarete euskarazko filmetan egindako lanengatik. Badirudi kanpoan saritzen dela euskal zinema eta etxean basamortuan bizi garela. Eta bestetik aipatu ere, azken boladan sortu den mogimendua Pantailak Euskaraz ekimenaren bitartez. Ze iritzi duzue honetaz? Ze etorkizun ikusten diozue gure hizkuntzari ikusentzunezkoetan?

Jone- Orain dela gutxi ETBk apostua egin zuen hiru telesailekin, *Alardea*, *Hondar ahoak* eta *Altsasu*. Eta itxaropen piska bat jarri zitzaigun euskal ikusleoi, fikzioa berriro euskaraz ETBn, baina gero ikusten da baliabide oso eskasekin egin direla, karentziakin... Gero, esatebaterako, *Pikuak* egitasmoa, egitasmo gaztea, gai berritzailetaz ari dena, itzalean geratu da. Orain bertan, egiten ari ginen *Larru gorritan* izan daitekeena nire ustez oso indartsua eta euskal ikusleok behar duguna. Behar dira istorioak gure ingurutik, gure herrietako errealitatek sortuko direnak. Bestela nondik sortzen ari gara gure identitatea. Behar ditugu gure hizkuntzan kontatutako gure erreferenteak. Beste arlo batzutan potenteak gara, literaturan esatebaterako, kulturalki, gure neurrirako, ekoizpen interesgarriak ditugu. Inbertitu dezagun gehiago fikzioan. *Larru gorritan* bezalako ekoizpen bat ETBk erosiko ez balu, ez dakidana gertatuko den, egitasmo hori non geratzen da? Ez dago plataformarik euskaraz ezer egiteko. Gaur plataformetan mugitzen dira gauzak. Errealitatea hori da. Orduan, berritu ala hil.

Patricia- Ni oso ados nago. Nik ez dut hemen egiten den ekoizpenen ezagutzarik. Ez dut hemen telebistan lan egin. Orain iristen ari zaizkit gauzak baina orain arte ez didate kaso askorik egin. Zineman bai... Uste dut zinema oso potentea daukagula hemen eta kanpoan jada ez dago hainbeste aurreiritziarik euskararekin. Oso zinema interesgarria egiten ari da, autoretza politik daude hemen. Ez naiz telebistaz eta ETBz ari. Zinemaz ari naiz, euskal zinemaz. Begira nora iristen ari garen *Handia* edo *Ane* bezalako pelikulekin. Kanpoan ere, interesa ipintzen ari da gai lokaletan. Uste dut momentu ona dela zinema euskaraz defendatzeko.



TEATRO EN VILO

- ▶ Noemí Rodríguez
- ▶ Azaroak 15–19 de noviembre.
- ▶ Bilbo. Bilbao Eszena
- ▶ Horario por concretar/Ordutegia zehazteko
- ▶ 100 €

Las directoras y dramaturgas Noemí Rodríguez y Andrea Jiménez son Teatro En Vilo, en el 2012 fundan en Londres la compañía que actualmente funciona como plataforma para colaboraciones internacionales e interdisciplinares entre creadores de escena, artistas e investigadores provenientes de países de todo el mundo.

La compañía persigue un constante diálogo con su entorno social, político y personal, lo que le obliga a renovar constantemente su lenguaje escénico. Desde sus espectáculos y formaciones la compañía busca situarse en la delgada línea que separa el teatro de la vida y la ficción de la realidad. Combinando lo improvisado y lo coreográfico, lo grotesco y lo autobiográfico, el humor absurdo y la comedia gestual, la ternura y la irreverencia, Teatro En Vilo se ha lanzado a la apasionante aventura de intentar desentrañar el tiempo en que vivimos.

Noemí Rodríguez (1987)

Actriz, directora, autora y pedagoga. Noemí Rodríguez se forma en la ESAD de Galicia

(donde recibe una matrícula de honor por su proyecto final de carrera) y después realiza un Máster en Artes Escénicas en la Universidad de Vigo y un curso de posgrado en la London International School of Performing Arts gracias al Programa de Becas en el Extranjero de la Fundación Barrié de la Maza, uno de los programas de Becas de Excelencia más destacado a nivel nacional e internacional. Noemí ha trabajado extensivamente en distintos países como Francia, Portugal, España, Inglaterra, Estados Unidos e India. Como actriz y bailarina ha trabajado para instituciones de prestigio como el Centro Dramático Nacional, el Centro Dramático Galego, el Núcleo de Experimentação Coreográfica do Porto, la English National Opera, o Cuarta Pared, y compañías europeas como Blind Summit o Improbable Theatre, entre otras.



EL ARTE DEL MOVIMIENTO TEATRO/ANTZERKIA

- ▶ Norman Taylor
- ▶ Abenduak 13–17 de diciembre
- ▶ Donostia
- ▶ Horario por concretar/Ordutegia zehazteko
- ▶ 100 €

El arte del movimiento para creadores de teatro: los actores. El curso está basado en el método de Jacques Lecoq. El ser humano primero se mueve... después habla. Siempre nos movemos antes de hablar. Lo físico busca y prepara lo psicológico.

El curso nos propone explorar el movimiento cotidiano, las acciones y la gestualidad. Veremos todo lo que podemos crear a partir de estas dinámicas. Crearemos escenas y recrearemos textos clásicos. Observar, analizar y darse cuenta de todo lo que nos rodea.

Acerca de Norman Taylor

Ampliamente considerado como uno de los mejores embajadores internacionales de la pedagogía de Jacques Lecoq, Norman enseñó junto a Lecoq en la École Lecoq durante casi 20 años. Es uno de los pocos maestros maestros de primera generación restantes de esta escuela y es un auténtico titular de este poderoso linaje pedagógico. Su especialidad es el análisis de movimiento y ha enseñado en

más de 30 países en algunos de los mejores conservatorios de teatro del mundo. Está cualificado de manera exclusiva para formar profesores en la pedagogía del movimiento de Jacques Lecoq, de la que tiene un entendimiento sin precedentes. Actualmente es docente en la prestigiosa École Internationale de Théâtre LASSAAD de Bruselas.

MI EXPERIENCIA COMO MIEMBRO DEL JURADO EN EL GOBIERNO VASCO

Fue una grata sorpresa trabajar como jurado en el área de producción teatral del Gobierno Vasco como representante de la unión de actores vascos. ¡Era algo que siempre había querido hacer! básicamente porque siempre he estado interesada en cómo se hace la selección de las personas que optan por el dinero público. (Y quien no ¿eh?)

Eramos unos 6 participantes, aparte el secretario. Dirección de Dantzerti, técnicos de cultura, gestora cultural y en mi caso artista y recién estrenada productora. Jóvenes la mitad, más experimentados la otra mitad. Una bonita selección la verdad. Está configurado de una forma en la que diferentes perfiles de compañías o artistas puedan acceder al dinero del contribuyente. (Osea a nuestro dinero, a tu dinero, al dinero de la family...) Este dinero es accesible para todo profesional que tenga un proyecto que quiera materializar.

Hay 3 modalidades para l@s que no lo sepáis (aunque la mayoría, imagino que ya tenéis el culo pelado, que remedio) pero esta bien hacer un repaso ¿no?

Producción 1

La primera ayuda a la producción 1 tiene que ver con un perfil de creador@s en la que básicamente no cuenta la experiencia previa, me refiero a bolos. Esto es genial porque estudiantes de arte dramático o personas que ya están en la profesionalización pueden optar al dinero. Es para artistas emergentes, nuevos proyectos. (Personalmente el más divertido, luego la cosa se pone más seria)

Producción 2

Una vez que has pasado esa fase de emprender y de agonizar quizá en busca de bolos y has conocido a programadores y programadoras, han visto tu trabajo, hay un vínculo y ya has empezado a tener recorrido con tu compañía, puedes optar a estas ayudas, aquí sí cuenta los bolos realizados y lo que vendes ¿ok?

Bianual

Esta ayuda es para productoras que llevan consolidadas tiempo, tienen una trayectoria y una estructura empresarial potente y llevas años currándotelo mucho mucho y dándole duro, pero duro de verdad. (Gracias por hacer camino)

Circuito concertado

Compañías que anteriormente se han presentado a Sarea y han vendido, si no me equivoco, un mínimo de 12 bolos. Pueden Optar a esta ayuda del Gobierno Vasco. Si lo consigues

tienes bolos y si eres seleccionado también puedes optar a la ayuda del Gobierno Vasco para producir tu idea.

Como ya sabéis presentas tu idea telemáticamente (no sé si alguien lo llevará en persona), y van llegando al jurado las propuestas para que las vayan estudiando. Se cierra el plazo. Después de haber estudiado todas las propuestas nos juntamos y comenzamos a comentar una a una nuestras impresiones. Anteriormente todo el mundo lleva el trabajo hecho y modificas según el intercambio de criterios junto con las "temidas" defensas. El secretario, secretamente recibe las notas y las mete en un programa que evalúa por porcentaje. Y aparecen los seleccionados. Todo esto lo calcula un programa calculando a su vez el dinero que hay en esa partida. Puedes quedarte fuera porque no haya más dinero, claro. Si en algún caso hubiera una partida en la que sobrara el dinero, este se pasaría a otra de las partidas. Esto fue algo que nos explicaron y la verdad me pareció genial.

Dicha la parte más técnica, lo más bonito para mí fue ver a tod@s en la defensa. La vulnerabilidad del oficio, las ganas, lo locos y locas que estamos por llevar a cabo una idea hasta el final. Me sentí orgullosa casi por primera vez de la capacidad de reinención de lo ingeniosas e ingeniosos de lo apasionados y de lo valientes que somos. De lo vivos que estamos.

Y derrepente no me sentí tan sola.

Consejos que yo me aplico y quizá puedan ayudar... Cuenta lo que quieres contar y si en tu idea está la diversidad adelante. Lo importante es el tema central, lo elaborada que está la idea, la innovación, que tipo de público quieres atraer, cual es tu visión. Qué aportas al panorama teatral. Tu idea. Sé tu mism@. Eres suficiente. ¡Eres suficiente!

Para terminar quiero dar las gracias de corazón a EAB por esta oportunidad que me ha abierto muchísimo el coco. Gracias a todos los que no cesáis de crear ideas, gracias por no desistir ni aunque haya un "Armageddon". Gracias por querer crear un mundo mejor. Gracias a los programadores que saben y quieren mantener el teatro vivo, a los gestores, tecnic@s y todas las personas que lo hacen posible. El mundo nos necesita. Persistid hasta que os la concedan. Muxuak denontzat!

Marga Altolagirre





LARA IZAGUIRRE LA ESCUCHA. DEL GUION AL SET

La dinámica y el planteamiento del curso son excelentes, muy recomendable para actores que quieran conocer otro método de trabajo o análisis de personaje. Un trato cercano, transmite confianza y seguridad. Dándole al actor libertad para mostrar la propuesta y consensuar entre ambos para lograr el objetivo planteado por la directora, minimizando con ello cualquier dificultad que pudiera surgir en rodaje etc.

Es un curso que aporta al actor unas herramientas diferentes para poder crear el personaje. Es interesante en su totalidad, la parte teórica enriquece el resultado final de la secuencia o monólogo. Recomendable principalmente a aquellos actores que estén interesados en ahondar en la búsqueda del personaje a través de la escucha del compañero. No me queda más que dar las gracias, tanto a Lara, como al grupo. **Gaizka Mikelarena**




Lara nos pide que grabemos dos minutos hablando de nosotros, qué hemos hecho, qué esperamos del curso.... Así ella puede situarnos y darnos textos o sugerir que busquemos un monólogo que ella supervisa.

Llegamos a Tabakalera, nos presentamos y reconocemos. 12 alumnos, 2 voluntarios de la escuela de Elías Querejeta y ella. 15 personas con ganas de hacer y de "escuchar". Descubrir la técnica Meisner filtrada por los ojos de Lara o debería decir por los oídos ya que todo lo basa en

la escucha. Descubrir en los compañeros y en uno mismo qué es esto de la escucha, asépticamente hablando, sin artificio; la palabra desnuda, desprovista de todo lo que no sea la palabra en sí misma. Este trabajo ya lo había practicado con otros directores, mentiría si dijera lo contrario pero el filtro "Lara" lo hace único. Ella da un sentido a todo de una manera sencilla, sin complicaciones, fácil, sólo hay que cogerse de su mano y jugar. Descubrir, cuantos "tics" tenemos todos. Ver desde la barrera como metemos la pata cuando hacemos un casting (al menos yo).

Lara hace que de una manera cotidiana la "cosa de la interpretación" fluya única. Entiendes desde que ves su primera peli que disfruta a lo bestia trabajando con las actrices/tores. Imaginas por dónde puede ir la cosa y sin embargo, te sorprende que todo fluya fácil. Ella es capaz de escribir una secuencia para que trabajemos al día siguiente en clase mientras se toma una caña y... hace magia, aquello funciona. Incluso cuando la cosa no es fácil y al llegar a clase descubre que uno no, dos de los alumnos, han sido convocados para un casting y decide echarles una mano así que ese texto que había escrito para una pareja, se modifica al momento y.... sabe darle un giro y aprovechar lo que tiene, sin ruido, sin sobresalto. Ella sabe dar a cada uno lo que necesita cuando lo necesita porque de entre todos Ella es quien mejor "escucha". Sólo digo que hay que estar muy loco para tener oportunidad de trabajar con Lara y desaprovecharlo. **Miriam Martín**





BERRITU ZURE DATUAK

Zuen daturen bat (posta elektronikoa, helbide postala, kontu korrontea) aldatu badituzue jakin arazi diezaguzue. Baita ez baduzue gure emailik jasotzen ere.

Batzuk oso gaztetxo azaltzen zarete web orriko fitxetan. Berritu itzazue argazkiak, mesedez. Horretarako eskeintzat bereziak egiten ditugu EAB-ko bazkide zaretenontzat. Gipuzkoan urte osoz. Bizkaian udaberrian egin berri dugu eta jende kopuru majoa biltzekotan errepikatu daiteke.

ACTUALIZA TUS DATOS

Si habéis modificado alguno de vuestros datos (correo electrónico, dirección postal, cuenta corriente) hacédnoslo saber. También si no recibís nuestros correos electrónicos.

Algunos aparecéis muy jóvenes en las fichas de la web. Renovad vuestras fotos, por favor. Para ello proponemos ofertas especiales entre los/as afiliados/as. En Gipuzkoa durante todo el año. En Bizkaia la última ha sido la pasada primavera. Y si se reúne un grupo mínimo podemos repetir la oferta.



IKASTAROAK

Buletin honetan udazkenerako bi ikastaro berri iragartzen dizkizuegu baina badira bidean dauden beste bi ere baina ale hau argitaratzeko ez ditugunak nahikoa zehazturik izan. David Pérez Sañudorekin antolatzekeo genuena 2022ra pasako dugu baina bilatuko dugu ordezkapenik.

Bilboko kamara aurreko Entrenamendurako une honetan irakasle bila ari gara.

CURSOS

En este boletín os anunciamos dos cursos para el otoño pero también hay otros dos en camino que en el momento de publicar este número todavía no hemos podido concretar.

El que íbamos a organizar con David Pérez Sañudo lo retrasamos a 2022 pero buscamos alternativa para este año.

Para el Entrenamiento con cámara en Bilbao buscamos también que lo dirija.

SINDIKATUKO TXARTELAREN BIDEZ JASO AHALKO DITUZUN ZERBITZUEN DESKONTUAK

SERVICIOS EN LOS QUE PUEDES OBTENER DESCUENTO CON EL CARNET DE AFILIACION

GIPUZKOA

Academia de idiomas OUI	20%	www.academiaoui.com
Fotógrafo Mikel Martínez Etxezarreta	15%	www.mikelmartinez.net
Maquillaje y peluquería Ainhoa Eskizabel	15%	ainhoexki@hotmail.com
Tai Chi Chuan Eskola	15%	www.taichichuaneskola.com
Videos Zazpiterdi	15%	http://zazpiterdi.com/es
Videos Zumeta	15%	www.zumetavideo.com

BIZKAIA

Librería de Artes Escénicas Yorick	5-15%	www.libreriayorick.com/teatro/
Maquillaje profesional Alicia Suárez	15%	www.aliciasuarez.net
Peluquería Glamuforia	15%	es-es.facebook.com/glamuforia
Videos Yolanda López de Heredia	15%	yolandalheredia@gmail.com

ANTZOKIKO DESKONTUAK

Alegria Dulantzi	0%	www.alegriadulantzi.com
Arriaga Antzokia	25% <small>o Precios Populares</small>	www.teatroarriaga.com
Barakaldo	15%	www.teatrobarakaldo.com
Donostiako Antzokiak	10%	www.donostiakultura.com
Elorrio	50%	www.arriolaka.eus/es
Gasteizko Antzokiak	20%	www.principalantzokia.org
Lobiano Kulturgunea (Ermua)	25%	www.ermua.es
San Agustin Aretoa (Durango)	25%	www.durango-udala.net/sanagustin
Oreretako Kulturgunea	10%	www.errenteria.net
Zornotza Aretoa	25%	www.zornotzaaretoa.net
Zumaia	50%	www.zumaia.eus/es

AISGE

da zurea

Ikus-entzunezko aktorea bazara,
EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Musutruk,

Formakuntzan
laguntzaile
izango gaituzu,
lanean babesle

Eta dagozkizun
eskubideen
zaintzaile



aisge

www.aisge.es